

# Arrotza

ALBERT CAMUS



erein

# Arrotza

**4nak, 3**

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra

(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com);

91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2017ko azaroan*

Jatorrizko izenburua:

*L'étranger*

Copyright © Editions Gallimard, Paris, 1942

All rights reserved

Azala:

Iván Landa

Maketazioa:

Erein

© Itzulpenarena:

Josu Zabaleta

© Edizio honena EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-225-4

L. G.: SS-1150/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)   

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Albert Camus

# Arrotza

Itzultzailea  
Josu Zabaleta

erein

## LEHEN PARTEA

## I

Gaur ama hil da. Edo atzo beharbada, ez dakit. Telegrama bat heldu zait zahar-etxetik: “Ama hila. Hilobiratzea bihar. Doluminik zinezkoenak”. Horrek ez du ezer esan nahi. Baliteke atzo izatea.

Zahar-etxea Marengon dago, Aljerretik laurogei kilometrora. Autobusa ordu bietan hartu, eta arratsaldean iritsiko naiz. Horrela amari gaubeila egiteko aukera izango dut, eta bihar arratsean itzuliko naiz. Lanetik bi eguneko baimena eskatu diot ugazabari eta, honelako zuribide batekin, ezin ukatu. Baina ez zirudien pozik. Esan ere esan diot: “Ez da nire errua”. Ez du erantzun. Orduan pentsatu dut ez niola horrelakorik esan behar. Ez nuen zertan zuribideak emanik, gainera. Berari zegokion, inori izatekotan, doluminak ematea. Baina etzi emango dizkit, seguru, dolutan ikusten nauenean. Oraingo, ama oraindik hilik ez balego bezalatsu da. Hilobiratu ondoren, berriz, orduan kontu bukatua izango da, eta itxura ofizialagoa harturik izango du denak.

Ordu bietan hartu dut autobusa. Bero egiten zuen oso. Jatetxean bazkaldu dut, Célesterenean, ohi bezala. Atsekabe handia zuten denek niregatik, eta Célestek esan dit: “Ama, bakarra izaten da”. Alde egiterakoan, ateraino lagundu didate. Zorabiatu samarra nengoen, Emmanuelenera igo behar izan baitut, gorbata beltz bat eta besoko zerrenda eskatzeko. Hark osaba galdu zuen, orain dela hilabete batzuk.

Lasterka ibili naiz autobusa ez galtzeko. Presa horregatik, lasterketa horregatik, eta autobusaren triki-trakak, gasolina-usainak, errepidearen eta zeruaren erreberberazioak eraginda ere bai, inondik ere, lokartu egin naiz. Lotan egin dut ia bide osoa. Eta esnatu naizenean, militar baten kontra kuzkurtuta nengoen; irribarre egin dit eta urrutitik nentorren galdetu dit. “Bai” erantzun diot, gehiago hitz egin beharrik ez izateko.

Zahar-etxea herritik bi kilometrora dago. Oinez egin dut bidea. Segituan ikusi nahi izan dut ama. Baina atezainak esan dit zuzendariarekin hitz egin behar nuela lehendabizi. Lanean ari zenez, pixka batean itxaroten egon naiz. Bitarte horretan guztian, atezaina hizketan aritu zait; ondoren zuzendaria ikusi dut: bere bulegoan hartu nau. Aguretxo bat zen, Oho-rezko Legioaren dominaduna. Bere begi argiez begiratu bat egin dit. Ondoren eskua estutu dit, eta

hain luzaro eduki dit helduta, non ez bainekien nola kendu. Dossier batean begiratu du eta esan dit: “Meursault andrea orain dela hiru urte etorri zen hona. Zu zintuen sostengu bakarra”. Zerbait itsustu nahi ote zidan iruditu zait, eta azalpenak ematen hasi natzaio. Baina moztu egin dit: “Ez duzu zertan desenkusaturik, seme. Irakurri dut zure amaren dosierra. Haren premiak zuk ezin zenituen bete. Zaintzaile bat behar zuen. Zure soldata xumea da. Eta, ororen buruan, zorientsuagoa zen hemen”. Eta nik esan diot: “Bai, zuzendari jauna”. Eta hark jarraitu du: “Hemen bazituen lagunak, badakizu, bere adineko jendea. Haiekin bazituen beren garaiko gaiak partekatzeko. Zu gaztea zara, eta aspertu egingo zen zurekin”.

Egia zen. Etxean zegoenean, isil-isilik niri begiratzen ematen zuen denbora guztia. Zahar-etxean igaro zituen lehenengo egunetan, sarri egiten zuen negar. Baina ohitura zuen hori. Hilabete batzuen buruan, zahar-etxetik atera izan balute, orduan egingo zukeen negar. Ohituragatik, orduan ere. Horrexe-gatik, hain zuzen, neurri batean behintzat, azkeneko urte honetan ia inoiz ere ez nintzaion ikustera joan. Eta baita horretarako igande osoa hartu behar nuelako ere; autobuseraino joan, billeteak hartu eta bi orduko bidaia egin beharraren nekea kontuan hartu gabe.



Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. Baina ia ez nion entzun ere egiten. Eta gero esan dit: “Ama ikusi nahiko duzu, seguru”. Ezer esan gabe altxatu naiz eta nire aurretik abiatu da aterantz. Eskaileretan azaldu dit: “Gure gorputegi txikira eraman dugu. Besteei zirrara handiegia ez eragiteko. Hemen erretiratuta dagoenen bat hiltzen den bakoitzeko, gainerakoak bi edo hiru egunez urduri ibiltzen dira. Eta horrek zailago egiten du zerbitzua”. Patio batetik igaro gara; atso-agure pila bat zegoen, taldetxotan banatuta berriketan. Gu igarotzean isildu egiten ziren. Eta, gure atzean, berriro hasten ziren solasak. Papagai-kalaka sor bat, esango litzateke. Eraikintxo baten atean, zuzendariak utzi egin nau: “Hemen uzten zaitut, Meursault jauna. Bulegoan naukazu, nahi duzun guztirako. Besterik ez bada, goizeko hamarretarako dago izendatuta hilobiratzea. Era horretan, hildakoari gaubeila egin ahal izango diozula iruditu zaigu. Eta beste gauza bat: badirudi zure amak askotan adierazi izan diela bere lagunei hileta elizaz egitea nahi zuela. Neu arduratu naiz horretarako behar direnak egiteko. Baina jakinean jarri nahi zintudan”. Eskerrak eman dizkiot. Ama, izan, ez zen atea, baina bizi zelarik sekula ez zuen erlijio-kontuetan pentsatu.

Barrura sartu naiz. Oso gela argia zen, karez zuritua, eta sabaia beirazkoa zuen. Aulkiak eta X eran

gurutzatutako asta-zaldi batzuk ziren altzariak. Asta-zaldi horietako biren gainean hilkutxa bat zegoen, gelaren erdian, bere estalkiaz estalita. Intxaurre tinduz margotutako oholen gainean torloju distiratsuak baizik ez ziren ikusten, ozta-ozta iltzaturik. Zerraldoaren ondoan erizain arabiar bat zegoen, mantal zuriz jantzia, buruan kolore biziko zapi bat zuela.

Une horretan atezaina sartu da nire ondotik. Lasterka etorri da, nonbait. Totelka antzean hasi zait esaten: “Estalkia jarri diogu, baina oraintxe askatuko ditut hilkutxaren torlojuak, ikus dezazun”. Zerraldoaren ondora zihoan, baina geldiarazi egin dut. “Ez duzu nahi?”, esan dit. “Ez”, erantzun diot. Ez du jarraitu, eta lotsatu egin naiz, iruditzen zaidalako ez niola esan behar horrelakorik. Handik pixka batera, begiratu eta galdetu dit: “Zer bada?”, baina itsusteko asmorik gabe, jakin nahia balu bezala, besterik gabe. “Ez dakit”, esan diot. Orduan, bere bibote zuria bihurrituz, begiratu gabe esan du: “Ulertzen dizut”. Begi ederrak zituen, urdin argiak, eta azala gorri samarra. Aulki bat eskaini dit eta bera ni baino atzeraxeago eseri da. Erizaina zutitu eta aterantz egin du. Une horretan atezainak esan dit: “Txankro bat du”. Nola ez bainion ulertzen, erizainari begiratu diot, eta begien azpian buru osoa inguratzen zion zapi-zerrenda bat zuela ikusi dut.

Sudurra behar zuen lekuan, zapala zegoen zerrenda. Bendaren zuritasuna baizik ez zitzaion ikusten aurpegian.

Hark alde egin duenean, atezainak esan du: “Bakarrik utzi behar zaitut”. Ez dakit zer keinu egin dudan, baina geratu egin da, nire atzean zutik. Bera han, nire atzean, egoteak enbarazu egiten zidan. Arratsalde bukaerako argi eder batek betetzen zuen aretoa. Bi erlastar burrunbaka ari ziren beiratearen kontra. Eta logalea nagusitzen ari zitzaidala sentitzen nuen. Atezainarengana biratu gabe esan diot: “Aspaldi al zaude hemen?”. Bertatik erantzun dit: “Bost urte”, galdera horixe betidanik espero izan balu bezala.

Ondoren, luzaro aritu da berriketan. Ez omen zen gutxi harrituko bere garaian egunen batean Marengoko zahar-etxeko atezain izan behar zuela esan izan baliote. Hirurogeita lau urte omen ditu eta paristarra omen da. Une horretan eten egin diot: “A, ez zara hemengoa?”. Gero gogoratu naiz zuzendarirengana eraman baino lehen amari buruz hitz egin didala. Albait lasterren lur eman behar zitzaiola esan dit, oso bero egiten duelako ordokian, eskualde honetan batez ere. Orduan jakinarazi dit Parisen bizi izana zela, eta kosta egiten zitzaiola hura ahaztea. Parisen hiru egunez edukitzen da hildakoa

etxean, inoiz lau egunez ere bai. Hemen ez da izaten horretarako astirik, konturatu orduko lasterka abiatu behar izaten da zerraldoa daraman karrozaren atzetik. Emazteak orduan esan dio: “Zaude isilik, gauza horiek ez dira gizonari kontatzekoak eta”. Agurea gorritu egin da eta barkatzeko eskatu dit. Nik hartu eta esan diot: “Ez da ezer, gizona. Ez da ezer”. Egokia eta interesgarria iruditzen zitzaidan kontatzen ari zitzaidana.

Gorputegi-gelatxoan bertan, zahar-etxe hartan behartsu gisa sartu zela jakinarazi dit. Oraindik lanerako osasuntsu sentitzen zenez, atezain eginkizun horretarako eskaini zuen bere burua. Azken finean gainerako erretiratuak bezalakoxea zela ohartarazi diot. Ezetz esan dit. Lehendik ere harritia ninduen erretiratuez hitz egitean nola esaten zuen “horiek”, “besteak”, bakanagotan “zaharrak”, haietako batzuk bera baino zaharragoak ez baziren ere. Baina ez zen gauza bera, noski. Bera atezaina zen, eta, neurri batean behintzat, eskubideak zituen haien gain.

Une horretan zaintzailea sartu da. Iluntzea bat-batean etorria zen. Oso bizkor egin da gau trinkoa beira-sabaiaren gainean. Atezainak argiaren giltzari eragin dio, eta argiaren bat-bateko dirdai-parrastadak itsutu egin nau. Jangelara joateko gonbita egin dit, afaltzeko. Baina ez nuen goserik. Katilu bat

kafesne ekarriko didala eskaini dit orduan. Kafesnea asko gustatzen zaidanez, estimatu egin diot, eta handik pixka batera erretilu batekin etorri da berriro. Edan egin dut. Orduan, erretzeko gogoia etorri zait. Baina zalantza sartu zait, ez bainekien zilegi ote zen amaren aurrean erretzea. Pentsatzen aritu naiz, ez dio batere axola. Atezainari zigarro bat eskaini diot eta biok erre dugu.

Handik pixka batera, esan dit: “Begira, zure amaren lagunak ere etortzekoak dira beila egitera. Ohitura da. Aulki batzuk eta kafea ekarri behar ditut”. Lanparetako bat itzaltzerik bazegoen galdetu diot. Argiak hormetan egiten zuen distirak nekatu egiten ninduen. Ezin zela esan dit. Instalazioa horrelaxe zegoela eginda: dena ala ezer ez. Handik aurrera ez diot arreta askorik jarri. Atera da, itzuli da, aulkiak antolatu ditu. Haietako baten gainean katilu batzuk pilatu ditu kafe-ontzi baten inguruan. Ondoren, nire aurrez aurre eseri da, amaren beste aldean. Zaintzailea ere atzealdean zegoen, guri bizkarrara emanaz. Ez nuen ikusten zer ari zen egiten. Baina haren besoen mugimenduari erreparatuta, puntua egiten ari zela iruditu zait. Epel egiten zuen, kafeak berotu egin nau eta ate irekitik gauaren usaina eta loreena sartzen zen. Pixka batean erdi lotan egon naitzela uste dut.

Ukitu arin batek esnatu nau. Begiak itxita eduki ondoren, lehen baino ere zuriz distiratsuagoa iruditu zait gela. Itzalik txikiena ere ez aurrean, eta begietan min ematen zuen garbitasun batez marrazten ziren gauza guztiak, ertz guztiak, kurba guztiak. Une horretan sartu dira amaren lagunak. Hamarrekoren bat ziren guztira, eta isilik herrestatzen ziren argi itsugarri hartan. Aulki batek ere kirrinka egin gabe eseri dira. Inoiz inor ikusi ez dudan bezala ikusten nituen, eta haien aurpegietako edo jantzietako xehetasun bat bera ere ez nuen galtzen. Baina ez nien entzuten, eta kosta egiten zitzaidan errealak zirenik sinestea. Emakumeek aurreko mantala zuten ia guztiek, eta gerrian lotzeko zerabilten kordioak are gehiago nabarmentzen zien sabel puztua. Inoiz erreparatu gabe nengozen zenbateko sabela izan dezaketen emakume zaharrek. Gizonezkoak oso argalak ziren ia denak, eta bastoiak zeuzkaten. Gauza batek harritzen ninduen haien aurpegietan: ez nizkiela begiak ikusten, zimur-habia baten erdian distirarik gabeko dirdai bat besterik ez. Eseri direnean, gehienek begiratu egin didate, eta estuasun pixka batez makurtu dute burua, ezpainak hortzik gabeko ahoak janda, eta ezin nuen asmatu agurtzen ari zitzaizkidan ala tik bat zuten hori. Agurtzen ari zitzaizkidan, nik uste. Une horretantxe ohartu naiz nire aurrean eserita zeudela

guztiak, atezainaren inguruan, burua kulunkan zutela. Ni epaitzeko ote zeuden irudipen barregarria izan dut une batez.

Handik pixka batera, emakumeetako bat negarrez hasi da. Bigarren ilaran zegoen, bere kideetako batek estaltzen zidala, eta ez nuen ongi-ongi ikusten. Aldiro-aldiro garrasitxoak eginez egiten zuen negar: negar egiteari behin ere ez ziola utzi behar iruditzen zitzaidan. Gainerakoek entzungo ez baliote bezalako itxura zuten. Abaildurik, goibel eta isilik zeuden. Zer-raldoari edo beren bastoiari edo beste edozer gauzari begiratzen zioten, baina hari bakar-bakarrik. Emakumeak negarrez jarraitzen zuen. Oso harrituta nengoen, ez nuen ezagutzen eta. Nahiago nukeen gehiago entzungo ez banu. Baina ez nintzen ausartzen esatera. Atezaina gainera makurtu eta zerbait esan dio, baina hark burua astindu, zerbait xuxurlatu eta lehen bezalakoxe jarraikitasunaz jarraitu du negar egiten. Orduan atezaina nire aldera etorri da. Gertuan eseri zait. Une luze samar baten ondoren, begiratu gabe jarri nau jakinean: “Oso lagun mina zuen zure ama. Hemen lagun bakarra zure ama zuela esaten du eta orain beste inor ez duela”.

Tarte luze bat egin dugu horrela. Emakume haren hasperenak eta negar-zotinak bakanduz zihozten. Maiz hurrupatzen zituen mukiak. Isildu da,

azkenean. Dagoeneko ez nuen logalerik, baina nekakuta nengoen, eta gerriko minez. Orain jende haren guztiaren isiltasuna gertatzen zitzaidan gogaikarria. Oso aldian behin hots berezi bat entzuten nuen, eta ezin asmatu zer zen. Azkenean ohartu naiz agure-atsoetako batzuek masailaren barrualdea xurgatzen zutela eta haiek egiten zituztela klaska bitxi haiek. Beraiek, ordea, ez ziren ohartu ere egiten, beren gogoetetan hain murgilduta zeudelarik. Hildako emakume hura, beren erdi-erdian zetzana, bati ere ez zitzaiela axola ere iruditu zait une batean. Orain, ordea, irudipen hori okerra zela uste dut.

Denek hartu dugu kafea, atezainak aterata. Handik aurrera, ez dakit. Gaua joan da. Gogoan dut une batean begiak zabaldu ditudala eta agure-atsoak lotan ikusi ditudala beren gain bilduta, bat salbu, eta hura, eskuak bastoiari helduta, kokotsa eskuen gainean pausatuta, begira-begira zegokidala, ni noiz esnatuko zain-zain balego bezala. Gero lo hartu dut berriro. Geroz eta gerriko min handiagoa nuelako esnatu naiz. Eguna sabai-beiratearen gainean irristatuz zihoan. Geroxeago, agureetako bat esnatu eta luzaro egon da eztulka. Laukiekiko sudur-zapi handi batean botatzen zituen karkaxak eta zerbait erauziko baliote bezala zirudien karkaxaldi bakoitzeko. Gainerakoak esnatu ditu, eta atezainak alde egin beharko luketela



esan die. Denak altxatu dira. Beila deseroso hark errauts koloreko aurpegiak utzi dizkie. Kanporakoan, eta horrek oso harritu nau, eskua eman didate denek, elkarri hitzik ere esan ez diogun gau horrek gure arteko intimitatea estutu izan balu bezala.

Nekatuta nengoen. Atezainak bere gelara eramau nau eta garbialdi bat hartu ahal izan dut. Beste kafesne bat edan dut; oso ona zegoen. Atera naizenerako, eguna erabat argituta zegoen. Marengo itsasotik bereizten duten muinoen gainean, goizeko oskorritz beteta zegoen zerua. Haien gainetik igarotzen zen haizeak gatz-usaina zekarren. Egun ederra zetorren. Aspaldian landan ibiltzera joan gabe nengoen, eta amarenagatik ez balitz ibili bat eginez nolako gozamen hartuko nukeen sentitzen nuen.

Baina patioan egon naiz itxaroten, platano baten azpian. Lur freskoaren usaina arnasten nuen, eta ez nuen logalerik dagoeneko. Bulegoko lankideez gogoratu naiz. Lanera joateko jaikitzen ariko ziren ordu horretan: niretzat horixe izaten zen beti orduarik zailena. Beste pixka batean erabili ditut gogoeta horiek, baina eraikin barrutik entzun den ezkila batek atera nau. Atzera-aurrera bat izan da leihoen atzean, eta gero dena baretu da. Eguzkia zeruan goraxeago igota zegoen: hankak berotzen ari zitzaizdan. Atezainak patioa igaro eta zuzendaria deika

nuela esan dit. Haren bulegora joan naiz. Dokumentu batzuk sinarazi dizkit. Beltzez jantzita zegoela eta marrekiko galtzak zituela erreparatu dut. Telefonoa eskuan hartu eta esan dit: “Hileta-enpresako langileak aspalditxotik dira hemen. Zerraldoa ixtera etortzeko eskatu behar diet. Itxi baino lehen amari azken ikusi bat egin nahi diozu?”. Ezetx esan diot. Orduan telefonoz agindu du, ahotsa beheratuz: “Figeac, esaiezu langileei hasteko, nahi badute”.

Ondoren esan dit hilobiratzean han egongo dela, eta eskerrak eman dizkiot. Idazmahaian eseri eta hankatxoak gurutzatu ditu. Biok baizik ez ginela izango jakinarazi dit, eta txandan zegoen erizaina. Erretiratuek, printzipioz, ez dute hilerrian hilobiratzetara joan behar. Beila egiten baizik ez omen die uzten: “Gizatasun kontua da”, ohartarazi du. Baina, salbuespen gisa, amaren lagun zahar bati ahukuarekin batera joateko baimena eman dio: “Thomas Pérez”. Zuzendariak irribarre egin du horretan. “Uler-tuko duzu –esan dit–, ume-sentimendua dirudi pixka bat. Baina zure ama eta hori elkarrekin ziren beti, bereizi ere gabe. Etxe honetan adarra jotzen zieten; “Andregaia duzu”, esaten zioten Pérezi. Pérezek barre egiten zuen. Gustatu egiten zitzaien. Baina egia da Meursault andrearen heriotza kolpe gogorra izan dela beretzat. Baimen hori ez niola ukatu behar

iruditu zait. Baina sendagile ikuskatzaileak aholkatu-rik, debekatu egin nion bart gaueko beilan parte hartzea”.

Puska batean isilik egon gara, nahiko luzaro. Zuzendaria zutitu eta bulegoko leihotik kanpora begiratu du. Halako batean, esan du: “Hara, etorri da Marengoko apaiza. Garaiz aurretik dator”. Zahar-etxetik elizaraino joateko gutxienez hiru ordu laurden beharko genituela ohartarazi dit, eliza herrian bertan dagoela-eta. Behera jaitsi gara. Eraikinaren aurrean apaiza eta bi akolito zeuden. Akolitoetako batek intsentsu-ontzia zeukan eta apaiza, makurtuta, zilarrezko katea neurrira egokitzen ari zitzaion. Iritsi garenean, apaiza zutitu egin da. “Seme” deitu dit, eta hitz batzuk esan dizkit. Barrenera sartu da; atzetik jarraitu diot.

Segituan ikusi dut zerraldoaren torlojuak estututa zeudela eta lau gizon beltz zeudela gelan. Aldi berean zuzendariari entzun diot autoa zain zegoela errepidean eta apaizari otoitzak hasten entzun diot. Une horretatik aurrera oso bizkor gertatu da dena. Gizonak oihal bat eramanez inguratu dira zerraldora. Apaiza, jarraitzaileak, zuzendaria eta neu ere, kanpora atera gara. Ate aurrean bazen ezagutzen ez nuen emakume bat: “Meursault jauna”, esan du zuzendariak. Ez dut entzun andre haren izena; erizain ordezkaria

zela ulertu dut, besterik ez. Irribarre bat ere egin gabe makurtu du bere aurpegi hezurtsu, luzea. Ondoren lerrotan banatu gara denok, gorputzari bidea uzteko. Anda-eramaileei jarraituz zahar-etxetik kanpora atera gara. Karroza ate aurrean zegoen. Bernizatua, luze samarra eta distiratsua, idazluma-ontzi bat gogoratzen zuen. Haren ondoan hileta-enpresako arduraduna, jantzi xebreak zituen gizontxo bat, eta itxura herabeko agure bat. Pérez jauna zela ohartu naiz. Hegal zabaleko feltrozko kapela biribil bat (hilkutxa atetik igarotzean erantzi egin du), trajea, galtzak zapaten gainean zimurtuta, eta lepo zuri zabaleko alkandorarako txikiegia zen oihal beltzezko lazo bat. Ezpainak dardaraz zeuzkan, puntu beltzez jositako sudurraren azpian. Ilea zuria eta nahiko mehea; haren artetik belarri bitxi samarrak, zintzilik eta ertzak desegoki eratuak; haien odol-kolore gorria deigarria iruditu zait aurpegi zurbil hartan. Hileta-enpresako arduradunak zegozkigun lekuak izendatu dizkigu. Apaiza aurrean; haren ondoren karroza. Inguruan, lau gizonak. Atzean zuzendaria, neu, eta ahukuaren bukaeran, erizain ordezkaria eta Pérez jauna.

Zerua eguzkiz blai zegoen dagoeneko. Lurra zanpatzen hasita zegoen, eta bizkor ari zuen berotzen. Nahiko luzaro egon gara zain abiatu baino

lehen, ez dakit zergatik. Bero nuen nire jantzi ilu-  
netan. Agureak, kapela jantzita baitzeukan, berriro  
erantzi du. Haren aldera biratuta nengoen pixka  
bat, eta begira nengokion zuzendariak hartaz hitz  
egin didanean. Esan didanez, ama zena eta Pérez  
jauna maiz joaten omen ziren ilunabarrean herri-  
raino pasieran, erizain bat lagun zutela. Inguruko  
landetara begira ari nintzen. Muinoetara, zerutik  
hurbilera, zeramaten altzifre-ilara haiek, lur gorritzat  
berde hark, etxe bakan ongi diseinatu haiek, ama  
ulertzen laguntzen zidaten. Paraje hartan geldiu-  
ne malenkoniatsu bat bezala izan behar zuen, inondik  
ere, ilunabarrak. Gaur, berriz, paisaia ikaratan jartzen  
zuen gehiegizko eguzki hark ankerra eta deprimiga-  
rria bihurtzen zuen paraje hura.

Abiatu gara. Une horretan ohartu naiz Pérez  
jaunak herren egiten zuela pixka bat. Karroza poliki-  
poliki bizkortuz zihoan, eta agureak ezin jarraitu.  
Karrozaren ondoan zihoanetako bat ere atzeratu  
egin da, eta nire parean zihoan orain. Harrituta  
nengoen eguzkia zeruan zein bizkor goratzen zen  
ikusita. Landetan burrunbaka zomorroen kantua  
eta belarraren zirtakatzea aspalditik entzuten zirela  
ohartu naiz. Izerdia masailetan behera irristatzen zi-  
tzaidan. Sonbreirurik ez nuenez, sudur-zapiatz ba-  
liatzen nintzen haizea emateko. Hileta-enpresako

arduradunak zerbait esan dit orduan, baina ez diot ulertu. Aldi berean, ezkerreko eskuan zuen musu-zapi batez buru-hezurra lehortzen zuen, eskuineko eskuaz kapela-ertza jasorik. “Zer?”, esan diot. “Gogor jotzen du”, erantzun dit zerua seinalatuz. “Bai”, esan diot. Handik pixka batera, berak galdetu dit: “Ama duzu hor doana?”. Eta nik berriro: “Bai”. “Zaharra zen?”. “Hortxe-hortxe”, erantzun diot, ez bainekien zenbat urte zituen zehazki. Eta gero isildu egin da. Atzera begiratu eta guregandik berrogeita hamarren bat metrora ikusi dut Pérez agurea. Presaka zetorren, kapela besoaren puntan balantzaka zerabilela. Zuzendariari ere begiratu diot. Duintasun handiz zihoan, behar ez zen keinu bat ere egin gabe. Izerdi-tanta batzuk zerizkion bekokian behera, baina ez zituen xukatzen.

Ahukua bizkorxeago ote zihoan iruditzen zitzaidan. Inguruan landa argitsu berbera ageri zen betiere, eguzkiz blai. Zeruaren distira ezin jasaneko zen. Une batean, konpondu berria zuten errepide zati batetik igaro gara. Alkaterna eguzkiak zartarazita zegoen. Oinak hondoratu egiten ziren, eta agerian uzten zuten haren mami distiratsua. Karrozaren gaintetik, karroza-gidariaren kapelak, larru egosizkoak, lokatz beltz hartaz oratua zirudien. Galdu samarra nengoen zeru urdin eta zuriaren eta kolore haien

monotoniaren artean, alkaterna zabalduaren beltz likatsuaren, jantzien beltz hilaren, karrozaren beltz likatuaren artean. Horrek guztiak, eguzkiak, karrozaren larru- eta gorotz-usainak, bernizarenak eta intsentsuarenak, lorik gabeko gau baten nekeak, begirada eta ideiak nahasten zizkidan. Berriro begiratu dut atzera: Pérez oso urruti zegoela iruditu zait, bero-hodei batean galdurik, eta gero bistatik galdu dut. Begiradaz bilatu, eta bidea utzi eta landan zehar jo duela ikusi dut. Aurrerago bideak bihurgune bat zuela ere ohartu naiz. Pérezek leku hura ezagutzen zuela eta gu harrapatzeko zeharbidez jotzen zuela konturatu naiz. Bihurgunean gurekin zen berriro. Gero berriro galdu dugu. Landan zehar jo du berriro eta horrela behin eta berriro. Nik odolaren taupadak sentitzen nituen lokietan.

Ondoren, hain arrapaladan, halako segurtasun eta naturaltasunez gertatu da dena, non ez bainaiz beste ezertaz gogoratzen. Gauza batez baizik ez: herri-sarreran erizain ordezkariak hitz egin didala. Ahots berezia zuen, aurpegiarekin batera egokitzen ez zena, ahots melodiatsu eta ikarati bat. “Geldiro bagoaz, eguzki-kolpe bat harrapatzeko arriskua dugu –esan dit–. Bizkorregi bagoaz, berriz, izerditu egingo gara, eta gero elizan hoztu”. Arrazoia zuen. Ez zegoen ihesbiderik. Egun horretako beste irudi batzuk ere

geratu zaizkit gogoan: herritik gertu, azkeneko aldiz elkartu zaigunean, Pérezek zuen aurpegia, adibidez. Urduritasunezko eta penazko malko lodiak zerizkion masailetan behera. Zimurrek, ordea, ez zieten uzten erortzen. Zabaldu, berriro elkartu eta urezko berniz bat bihurtzen zitzaizkion aurpegi suntsitu hartan. Gero eliza ere bai, herritarrak espaloietan, geranio gorriak hilerriko hilobien gainean, Pérezen ondoeza (txotxongilo apurtu bat zirudien), odolaren koloreko lurra amaren zerraldoaren gainean, hartan nahasten ziren sustraien mami zuria, jende gehiago, hotsak, herria, kafe baten aurrean zain egotea, motorraren zurrunga etengabea, eta nire poza autobusa Aljerreko argi-habian sartu eta pentsatu dudanean oheratu eta hamabi orduz lo egin behar nuela.